

noaua

**Eperra ikastola,
elkartasun premian**

**Herriko 65 lasterkari
Behobia-Donostian**

**Zumetari buruzko
dokumentala, ostiral
honetan Sutegin**



**Emakumeen aurkako indarkeria
salatuko da azaroaren 25ean**



OGI BERRI
ARTISAU OKINAK

**ETA ORAIN...
IKUSI FUTBOL
PARTIDUAK
GUREKIN!**



egunero 06:00tik 21:00ra (asteburutan ere)
PUNTAPAX KALEA 16 (ARTZABAL)

GOLDWELL
ELUMEN

i l e a p a i n d e g i



mistoa

Koloraziotan teknika
berriak eta iraunkorrrak

Zubiaurrenea 4. ☎ 943 361 951



pikabea Aseguru Artekaritza

GESTORITZA ZERBITZUA JARRI DUGU!
Autoen esku-alaketak, Garraio-txartelak...

SEGURO MOTA GUZTIAK, ESKATU AURREKONTUA!

- autoak ·etxeak ·bizi-aseguruak ·komunitateak ·merkataritza-dendak
- enpresak ·pentsio planak ·istripu aseguruak ·ontzi aseguruak

Telf: 943 37 11 18 telf/fax: 943 37 19 97 Plaza Uzturre, 8 Lasarte-Oria pikabea@infonegocio.com J-0078EUS

Albisteak iruditan

Ramon Kamino, Tipi-Tapako azaroko saritua

Hurbilago Elkartek antolatzen duen pintxo festak, denboraldiko bigarren saritua du jada; Ramon Kamino. 2755 zenbakidun txartelaren jabea da, azaroaren 3an ospatu zen Tipi-Taparen amaieran, Xarma tabernan egin zen 150 euroko erosketa balearen zozketako irabazlea. Saria, Hurbilago Elkarteko establezimenduetan xahutu ahal izango du Ramonek. Tipi-Tapako hurrengo zozketa (orain hile-ro), abenduaren 1ean.



150 euroko erosketa balea jaso du Ramon Kaminok.

Laburrean

Ostegun honetan, afari beganoa gaztetxean

Hileroko bigarren ostegunetako hitzorduak eutsiz, afari beganoa antolatu du Usurbilgo Gaztetxeak. Borondatearen truke, urte garai honetako "plater goxo eta beroez" gozatu ahal izango da Kooperatibaren egoitzan. Eta afalostean, Isuo Sassia zarautzarraren emanaldia.

1973koen kinto bazkariak

Ostiral honetan azaroaren 15ean itxiko dute bazkaritarako izen emateko epea. Izena emateko azken egunak dira hauek, helbide honetan; usurbil1973@hotmail.com. Bazkaria azaroaren 23an egingo dute, 14:00etan Atxega jatetxean. 12:00etan jarri dute biltzeko hitzordua Bordatxon.

Hitzaldia Aginagan

"Zergatik sortzen dira zeloak eta nola eragiten dute egunerokotasunean?", galdera honen inguruan jardungo dute ostiral honetan, azaroaren 15ean, iluntzeko 19:00etatik aurrera Aginagako ludotekan. Hitzaldia, San Praixku Guraso Elkartek antolatu du.

noaqua

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noaqua.com /// www.noaqua.com
Jendaurreko ordutegia: 10:00-14:00 / 16:00-19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Ana Aizpurua.
Aldizkari koordinatorak:
Imanol Ubidea.
Idazkaria: Aizpea Aizpurua.
Publizitatea: Bea Alda,
publizitatea@noaqua.com.
Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,
erredakzioa@noaqua.com:
Imanol Ubidea, Aritz Lasarte,
Aizpea Aizpurua.
Banaketak: Olatz Rezola, Arantxa Zulaika.
Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,
Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbiet, Maddi Galbete,
Ana Urdangarin, Maddi Zaldua,
Iñaki Larrañaga, Pako Agudo,
Jon Etxabe, Alazne Begiristain,
Denis Elortza, Pello Aranburu,
Xabier Aranburu, Inma Balda,
Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi,

Maialen Unanue, Ugaitz Agirre,
Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.
Tirada: 2.800 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.
Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.




Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Imanol Ubeda

Dena ez da balekoa

Langabezia, ustelkeria zein iruzurra, izaera ekonomikoko arazotarak eta klase politikoa dira herri-tarren kezka nagusiak. Iazko goiburu bat da hori. CIS delako ikerketa soziologikoen elkarrekin egindako neurketan baten harira El País egunkarian irakurria.

Uste dut inor ez dela harritu lehen parrafo honekin. Ez da berria. Nahiz eta inkestan ez parte hartu, ez naiz hain diferentea. Ez gara hain diferentek. Neurri batean ala bestean, gaitz horien edo horietako askoren beldur gara gu ere.

Sartu garen edota sartu gaituzten ataka honetatik ateratzeko gauza asko egin beharko dira. Baina bada nire ustez bat funtsezkoa dena. Hurrengoaren bidean.

Hiztegia baino hobeto ezingo nuke definitu errespetatzearen esanahia: ad. 1. Norbaiti edo zerbaiti errespe-

tua edo begirunea izan. *Gurasoak maitatu eta errespetatu*. 2. Besteren eskubide, izaera, etab. aintzat hartu, haien kontrako ekintzarik ez egin. *Alabaren gogoia errespetatzeko*.

Horregatik kezkatzen nau Bergaran egun hauetan gertatu dena. Hiri hondakinen inguruko kontsulta deituta zegoen. Kontsultazalea izan naiz beti. Are gehiago, herritar orori dagozkien kontuetan. Eta hiri hondakinen tratamendua bada denoi eragiten diguna. Beti pentsatu izan dut oso sana dela jendeari galde egitea. Lehen, eta batez ere orain. Bizi ditugun garai nahasi hauetan, hain estima eskasean den jardura politikoa duintzeko balio dezakeela uste dut.

Baina Bergaran pasa dena egun hauetan ez da batere sana. Ez hiri hondakinen ingurukoak konpontzeko, ez galdeketa bultzatu zutenentzat, ezta bere iritzia ematera hurbildu

zirenentzat. Are gutxiago, hurrengo batean, herri galdeketa bat planteatu nahiko duenarentzat. Edozein izanik deitzailea, edozein izanik bozketarako gaia. Dena ez da balekoa. Hasiera hasieratik zalantzak eragin dituen kontsulta izan da. Beti pentsatu dut zorroztasunez egin behar direla gauzak, are gehiago, herritarren partehartzea tarteko denean.

Usurbilgo ejenplua etorritik burura gaur. Uste dut kontuan hartzeko lezioa eman zutela herritarrek 2010eko otsailan. Udalak deitu zuen kontsulta (garai horretan agintean zeudenak, hasiera batean, oso argi ez zuten arren). 4.915 izan ziren bozka ematera hurbildu zirenak. Partehartzea, beraz, %70,23koa izan zen.

Gogoan dut kritikak eragin zituela galderaren planteamenduak, hiru aukera eman zirelako: Atez ate, 4 edukiontzien sistema (atez atekoaren

aurreko sistema) edo 5. edukiontzia. Eta hara, ia lau urteren ondoren, datuei erreparatu, argi geratzen da galderaren nolakotasunakez zuela eragin izan azken emaitzan. Botoak atez ate edo 5. edukiontzien artean banatu zirelako.

Galdeketa bera arazo handirik gabe eta Ertzaintzaren beharrik gabe egin zen (memoriak hutsik egiten ez badit). Normaltasunean. Emaitzaren berri baduzue. 400dik gora botoengatik nagusitu zen atez atekoa. Eta bihar ramunean, atez atekoarekin jarraitu zen. Hori ere baloratzekoa baita. Atez atekoa ipini ondoren, ia urtebetera egin zen herri galdeketa hemen. Jendeak ordurako bazekien zer zen atez atekoa. Eta herritarren gehiengoak hurbildu zen bozka ematera, atez atekoa zer zen probatu ondoren. Eta boto emaileek, gehiengoz, jada egiten ari ziren ari babesa eman zioten.

Luken Arkarazo | Aritz Gorriti | Idoia Torregarai | Luis Aranalde | Maialen Unanue | **Imanol Ubeda** | Nerea Zinkunegi | Joxe Piñas

Ika-Mika

Bigarren Ingurubideak, sekulako txikizioa ez ezik, konpondu beharreko alboko kalteak ere sortu ditu Errekalden

Consumer aldizkariak "Los peores desastres urbanísticos de España" izenburuko erreportaia plazaratu berri du. Besteak beste, "Nación Rotonda" webgunearen berri ematen du. Webgune horrek satelite bidezko argazkiak biltzen ditu, eta horien bitartez azken hamar-hamabost urteotan Estatu espainoleko hainbat udalerritan eginiko txikizio ekologikoak agerian uztea du helburu. Udalerririk horietako bat Donostia da. Bi argazkik ordezkatzen dute Gipuzkoako hiriburua, biak ala biak Errekalde

ingurukoak. Bata da Bigarren Ingurubidea egin aurretik ateratakoa; bestea, berriz, egin ondorengoa. Atxikita bidaltzen ditugu, baina webgune bera bisitatzea gomendatzen dugu (<http://www.nacionrotonda.com/search/label/Gipuzkoa>), argazki bat bestearen gainean ipintzeko aukera ematen duelako eta, horrela, Errekalde inguruak pairatu duen aldaketa are ikusgarriagoa delako.

Irudiok txikizioaren neurria agerian uzten dute, baina badira irudiotan nekez ikus daitezkeen alboko kalteak

ere. Horietako bat da ezin dela oinez joan Lasartetik Errekaldera; eta alderantziz, jakina. Esan izan da garraio azpiegitura erraldoiek elkarrengandik urruti dauden herriak lotzen, baina, aldi berean, elkarrengandik gertu daudenak bereizten dituztela. Horren lekuko garbia da Bigarren Ingurubidea Errekalde partean. Izan ere, porlanean sekulako dirutza xahutu arren (edo, hain justu, horren ondorioz), gaur egun ez dago oinezkoentzako biderik Lasarte eta Errekalde bitartean. Esaterako, Lasartetik Errekaldeko tana-

toriora joan behar duten herritarrek, derrigorrez autoz, autobusez edo trennez joan behar dute, tartea kilometro eskasekoa bada ere.

Arestian esan bezala, Bigarren Ingurubideak sekulako txikizio ekologikoa eragin zuen Errekalde inguruan, baina, gainera, oraindik konpondu gabe dauden alboko kalteak sortu zituen. Lasarte eta Errekalde-Añorga (eta, ondorioz, Donostia) lotuko dituen oinezkoentzako bidea falta dugu, alegia.

Eguzki

Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOAUA!k ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatuta eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia.

Hurrengo alea: azaroak 22. Idatzia ekartzeko azken eguna: azaroak 18.

Joxe Ramon Unanue zendu da

Txirrindularitza eta eskubaloian urte luzez ekarpen handia egin duen usurbildarra joan zaigu; Joxe Ramon Unanue Matxain. 60 urte zituela zendu zen, iragan aste hasieran. Belaunaldi desberdinetako herriko hainbat gazte prestatu ditu Unanuek. Gerora izen handiko kirolariak izan direnak, tartean Xabier Carbayedak, edota Zubeldia anaiak. Berak sortu zuen duela hiru hamarkada, Usurbilgo lehen Txirrindularitza Eskola.

Eskubaloian ere prestatzaile lanean aritu zen urte luzez. Berriki, Usurbil Kirol Elkartearen 50. urteurrenaren harira, J.J. Furundarenak idatzi duen liburuko pasarte batek jasotzen duenez, "80-81 denboraldi arte itxaron beharko genuen, ordea, Gipuzkoako Lehen Mailako Txapelketa irabazteko. Era horretara, 2. Nazionalera igotzea lortu zuen Usurbil Kirol Elkartek: gizonezkoen mailan inoiz lortu den balentriarik handiena izan da (gero errepikatu egin zen). Joxe Mari Furundarena izan zen entrenatzaile, eta hark Ramon Unanue ekarri zuen prestatzaile fisiko. Unanuek lan bikaina egin zuen, eta taldeari izugarritzko sendotasun fisikoa eman



Iragan astean zendu zen, 60 urte zituenean.

AITZINDARIA

"Eskubaloian prestatzaile lanetan aritu zen urte luzez. Txirrindularitza, berak sortu zuen Usurbilgo lehen eskola"

zior, abiaduraz gain. Aisa irabazi zuten liga, garbi jokatzaz gainera, Kiroltasunaren Saria ere berentzat izan baitzen. Txapelketa irabazteak igoera fasea jokatzeko zekarren: horixe zuen sari nagusi", jasotzen du Usurbil Kirol Elkartearen mende

erdiko historia jasotzen duen liburuak.


Azken urteak, Buruntzazpin

Azken urteok, Lasarte-Oria eta Usurbilgo txirrindulariekin batera osatu den Buruntzazpi Txirrindularitza Eskolan eman zuen Unanuek.

Pasa den larunbatean hastekoa zuten hain zuzen eskolen denboraldi berria, Lasarteko Atsokabar parkean. Ohikoa zen duela ez askora arte, Joxe Ramon Oiarde Kiroldegiko behe aldean Buruntzazpik duen egoitza atarian ikustea.

Apustua erraz irabazi zuten

4.000 euro jarri zituzten jokoan. Dirua, 60 ontzeko 14 enbor lehenago ebakitzen zituenak eramango zuela hitzartu zuten. Desafiorako plaza ere jarri zuten, iragan ostiralean, Zegamako frontoian lehiatzekoak ziren. Eta garaipena argia izan da; Zerainen bizi den Xabier Dorronsoro usurbildarrak eta Xabier Zaldua zumarragarriak irabazi zuten azaroaren 8ko aizkora apustua. Lanak amaitzeko, aurkariek, etxekoak ziren Joxe Mari Esnaola eta Imanol Berasategi zegamarrek baino 12 minutu gutxiago behar izan zituzten. Aizkolarion arteko desfioak ikusmin handia sortu zuen. 600 lagunetik gora bildu zituen.



Xabier Dorronsoro.

Bere txirrindulariek, errepidean omendu zuten

Azaroaren 9an larunbata, Araba partean aritu ziren Buruntzazpi Txirrindulari Eskolakoak lehian, Arbulo herrian.

Jubeniletan Xuban Errazkin nagusitu zen eta Jon Ander Unanue

bederatzigarren izan zen.

Kadeteen mailan, Iñigo Altuna bosgarren izan zen. Denak izan zuten Joxe Ramon Unanue gogoa. Talde osoa joan zen Arabara, Unanueri omenaldia egitearren.



Xuban Errazkin, podiumean.

Ion Korta, mendi duatloiko podiumean berriz

Podiuma zapaldu du berriz, hiru garren postuan amaitu baitzuen Murgia (Araba) lasterketan. Euskal Herriko Mendi Duatloiko zirkuituko zazpigarren proba izan zen Murgiakoa. Hamar probaz osatua dago eta azkena Zubietan ospatuko da, abenduaren 1ean.

JE JON ELORZA
IGELTSERITZA OROKORRA
Obrak eta erreformak
661 804 688
 San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

EGUNEKO MENUA KARTA
PLATER KONBINATUAK
OGITARTEKOAK
TOSTAK
MENU BEREZIAK

ARTZABAL
 Baserria - Jatetxea
 Puntapax 8, Usurbil
 943 36 91 39

Bake Epaitegian, euskaraz aritzeko bermerik ez

Euskaldunoi hizkuntz eskubideak urratzen segitzen dute eguneroko bizimoduan, zenbaezinak diren hainbat eta hainbat egoeretan. Azken adibidea, Usurbilgo Bake Epaitegian dugu. Bertako idazkari titularrak erretiroa hartu du eta haren ordeaz, langile berri bat hasi da lanean. Lanean hasi den langileak ordea, ez daki euskaraz. Eta honenbestez, Bake Epaitegira doan herritarrari ezin go zaio euskaraz zuzendu. Beste modu batean esanda, usurbildarrek bertako zerbitzua euskaraz jasotzeko bermerik ez dute.

Horrelakoak, Usurbil bezalako udalerrri euskaldun batean gertatzea posible da egun, eta hala izaten jarrai dezake, legediak ere ez baitu inolako bermerik eskaintzen. Indarrean den araudiaren arabera, Bake Epaitegiko idazkari lanpostu horretan lanean jardungo duenak ez du zertan euskara jakin behar, 2015eko urtarilerara arte.

Eskubideak beste behin ere, urratuak

Egoera beraz argia da. Usurbildarren hizkuntz eskubideak urratuak dira beste behin; administrazioarekin euskaraz jarduteko duten eskubidea hain zuzen. Bai usurbildarrena, baina baita oriotarrena ere. Bi udalerririk Bake Epaitegiatarako Idazkaritza bakarra osatzen baitute, "1992ko Justizia Ministerioaren agindu baten arabera".

Euskarazko zerbitzua bermatzeko exijentzia

Egoera honen berri jaso du Usurbilgo Udalak eta erantzun du baita. Mertxe Aizpurua alkateak, Orioko Udaleko alkate Beñat Solaberrietak eta



Egoera konpondu dadin eskatzeko, gutun bat idatzi du Udalak eta instituzio ezberdinetara bideratu du.

ORIO, EGOERA BEREAN

Bi udalerriotako biztanleriaren hiru laurdenetik gora euskaldunak direla gogorarazten dute, eta gutunak jasotzen duenez, "udalok sarri aldarrikatu dugu euskaraz naturaltasunez bizitzeko nahia"

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateko (UEMA) lehendakari Maren Belastegik, gutun bana helarazi diete, Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailburuordetzari, Arartekoari, Hizkuntza Eskubideen Behatokiari eta Elebideri. Eskabide argi bat egiten diote erakunde guztioi; "Gure herritarrek justizia administrazioarekin euskaraz jarduteko duten eskubidea aintzakotzat hartuta, Usurbilgo eta Orioko Bake Epaitegietan oinarritzako eskubide hori berma dadin behar besteko neurriak jartzea".

Eskabide hau betetzea exi-

jitzen dute bai Usurbil eta Orioko Udalek, baita UEMAk ere. Bi udalerriotako biztanleriaren hiru laurdenetik gora euskaldunak direla gogorarazten dute, eta gutunak jasotzen duenez, "udalok sarri aldarrikatu dugu euskaraz naturaltasunez bizitzeko nahia".

Ez da kontu berria

Legediak dioena ere nabarmentzen dute, zehazkiago esanda, 10/1982 Euskararen Oinarritzako Legeak euskal herritarrei aitortzen dien eskubidea: "Arduralaritzarekin eta Autonomia Elkartean kokatutako edozein ihardutze Sail edo Erakunderekin harremanak hitzez eta/edo idatziz euskaraz edo gaztelaniaz izateko eskubidea" hain zuzen. Eta urte luzez, gai honekiko azaldu duten kezka ere jasotzen duen dokumentazioa erantsi diote gutunari. Ez baita kontu berria. Bake Epaitegiari loturiko hizkuntz eskubideen urraketak atzetik datoz.

Hizkuntz eskubide urraketen berri emateko...

Bake Epaitegian edota handik kanpo, hizkuntz eskubideari loturiko urraketen bat sufritu baduzu, salatzeke aukera duzu. Horretarako bideak badaude aspalditik. Eta ez da lan konplexua. Usurbilgo eta Orioko alkateek eta UEMAk lehendakariak, urraketa honen berri ematen duen gutunetako bat Hizkuntza Eskubideen Behatokiara bideratu dute. Baina herritarrok ere gauza bera egin dezakegu.

Geure hizkuntz eskubideren bat urratzen dutenean, salaketa bidera dezakegu Behatokiara. Nola? Lanok errazteko daude bideak:

- Kexak jasotzeko buzoia: udaletxean, Sutegin, NOAUA:n eta Urbil merkataritza zentroan.
- www.euskararentelefonoa.com
- Euskararen Telefonoa: 902 194 332 (doako zerbitzua).
- telefonoa@behatokia.org

Heldu eta nerabeen arteko gatazkak ebazten

Hezitzaile, irakasle nahiz gurasoei begira antolatu du doako ikastaro hau, Usurbilgo Udalak. Ainara Lasuen, Sorkari elkarteke psikologoak bideratuko du ikastaroa. "Ikastaro honetan adimen emozionala abiapuntutzat hartuta, heldu eta nerabeen artean sortzen diren gatazkei aurre egiteko hainbat baliabide eta estrategia jorratuko dira. Besteak beste, honako gaiak landuko dira: baliabide pertsonalak, gatazken dinamika, euste psikologikoa, prebentzioa eta gatazkari aurre egiteko ikuspegi barneratzaileak", aurreratu du te antolatzaileek.

Ikastarorako izena aurrez eman behar da, Gizarte Zerbitzuetara deituta, 943 377 110 telefono zenbakira, edo email bat idatzita, gizarte-zerbitzuak@usurbil.net helbidera. Hiru talde osatu asmo dituzte. Talde bakoitzak azarotik maiatzera bitarte, bost saio izango ditu Potxoenean.



Gatazkari aurre egiteko mekanismo ezberdinak landuko dira.

GIZARTE ZERBITZUAK

"Ikastarorako izena aurrez eman behar da, Gizarte Zerbitzuetara deituta, 943 377 110 telefono zenbakira"

1. TALDEA

Ordutegia: 17:00-19:00.
Egunak: azaroak 12, urtarrilak 7, otsailak 11, martxoak 18 eta apirilak 29.

2. TALDEA

Ordutegia: 17:00-19:00.
Egunak: azaroak 18, urtarrilak 9, otsailak 4, martxoak 13, apirilak 28.

3. TALDEA

Ordutegia: 18:00-20:00.
Egunak: azaroak 26, urtarrilak 16, otsailak 13, martxoak 17, maiatzak 7.
Tokia: Potxoenea.

Antolatzailea: Usurbilgo Udala.

Krisiari aurre egiteko ikastaroa

Krisiak gudan duen eraginaz eta egoera horri nola aurre egin, horretaz jardungo du, "Kenkt" izeneko Kristau Euskaldunen Kultur Taldeak antolatu duen ikastaroak. "Bizitzarako tresnak" eskaini asmo ditu datozen asteotarako programatu dituen saioetan. "Mundu krisia, Usurbilen ere nola eragiten duen kontuan hartzen du, eta honi aurre egiteko gizakiok behar ditugun laguntza edo tresnak proposatu nahi ditu", diote "Kenkt" taldeak.

Gizabanakoaren ardura landuz

Hausnarketa eta gogoeta bultzatu nahi dute, "gizabanakoaren ardura landuz Bibliaren ikuspegitik, Jesus eredutzat hartuta". Krisiakeragindako egoera latzak saihesteko beharrezko aldaketak jorratu asmo dituzte ikastarotan, norbere esku dagoen horren ardura hartzeaz edota egoera ez okertzeko zer egin daitekeen aztertuko dute.

Kenkt taldea

Azaroaren 8an hastekoa zen ikastaroa, abenduaren 20ra arte luzatuko da. Saioak, ostiralero izango dira, 9:30-11:30 artean. Besteak beste, gaiok jorratuko dira; ustelkeria, bestelako krisiak (moralak...), zer egin krisiaren kontra?, krisi indibiduala ala globala?, eguberriaren krisirik ez?... Argibide gehiagorako: kenktateak@gmail.com edo 686 285 579. Ikastaroa euskaraz eta doan eskainiko da.

Boliviako berri, Gaztetxean

Askapenaren bidez, pasa den udan Bolivian lanean ari-tutako bi brigadista Usurbilgo Gaztetxean egongo dira igande honetan, azaroaren 17an.

Hitzaldia eskainiko dute arratsaldeko 18:00etatik aurrera, "Bolivia, herri indigena baten borroka" izenburupean.

Herrialde hartako mugimendu

sozial eta politikoei, eta hizkuntza arlo eragileekin izandako bizi-penen berri emango dute.

Ondoren, eztabaida saio irekia izango da.

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Okindegia-Gozotegia

LABE-GOXO

Zuen
publizitatea
hemen

943 360 321
publizitatea@noaia.com

Eperra ikastola ere, elkartasun premian



Sohütako Eperra ikastolako ikasleak. Saskien bitartez jasotzen dituzten irabaziak premiazkoak dira eurentzat.

Zuberoako produktuez hornituriko eguberrietako otarrak salgai jarriko ditu aurten ere Nafartarrak taldeak. Helburu nagusi batekin; Sohütako Eperra ikastola laguntzeko. Eskaerak egiteko azaroaren 30era arteko epea dago. Izena emateko, ohi bezala, NOAUA!ko egoitzara deitu dezakezue, 943 360 321 telefono zenbakira. Edo egoitzara etorri. Apuntatzerakotan, izen abizenak eta telefono zenbakia adierazi beharko dira, baita zenbat otar nahi diren ere.

Otarrek abenduan jaso ahalko dituzue. Kanpaina borobiltzeko, Nafartarrak taldeak kalean ekitaldi bat egin asmo du, ekimena baloratu eta otarrak banatzearekin batera. Otar hauekin jasotako laguntza, Zuberoako Eperra ikastola finantzatzera bideratuko da. Iaz, 5.120 euroko laguntza bildu zuten. Eta laguntza ederki asko eskertu zuten Eperra ikastolakoek. Eraikina handitzen eta berritzen ari baitziren. Eperra ikastolako lehendakari Jojo Malharinek NOAUA!ri eskainitako elkarriketan, halako ekimenen garrantzia nabarmentzen

zuen, "Xiberoko euskararen geroa gure ikastolatan baita".

Elkartasun ekimen honen bidez, ikastolaren egoera ekonomikoa hobetu nahi dute, eta bide batez, tokiko jantziak ezagutzera eman. Otarrak Zuberoan bertan ekoiztutako produktuez hornituak baitaude.

Saskiak iaz, diru-iturrien %5 izan ziren

Azaroaren 30era arte eska daitezkeen Zuberoako produktuez hornituriko otarren salmentatik jasotako laguntza, Eperra ikastolak 2012an jasotako diru-sarreraren %5a suposatu zuen iaz. Diru-iturrien ia erdia laguntzaileek jarritakoa izan zen, %46a hain zuzen. %29 etxekoek finantzatu zuten eta %20a erakunde publikoek.

Otarren salmenta urtez urte gorantz doala berri eman dute kanpaina honen sustatzailerak. Baina laguntza beharrian jarraitzen dute. "Jakinez hizkuntza sailean zer nolako lana egiten ari den Ikastola, Xiberoko, gure arbasoen hizkera berreskuratzeko prozesu honetan, zuen laguntzaren eske gatoz. Zuei esker, euskararen tokia Xiberokoan segurtatua izanen da. Esker mila,

zuen elkartasunaz", adierazi dute.

Bi otar aukeran

Aurreko urteen moduan, Nafartarrak taldeak antolaturiko kanpaina honen baitan, bi otar egongo dira aukeran. Bat eta bestea, Zuberoan bertan ekoiztutako produktu goxo askoz beteak:

AHUSKI OTARREA

Prezioa: 39 euro.

Produktuak: ardi gazta (1kg), ahate gibelarekin eginiko pate (200 gr.), bizkotxo poltsa "artisanala" (200 gr.) eta ez-tia (500 gr.).

IRATI OTARREA

Prezioa: 51 euro.

Produktuak: ardi gazta (1kg), ahate gibelarekin eginiko pate (200 gr.), bizkotxo poltsa "artisanala" (200 gr.), axoa, xahalki xehatua saltsan (750 gr.). Informazio gehiago: www.xiberokoikastolak.eu

EKOIZLEAK

Gazta: Azkorria Muskildi, Koitxe Mitikile, Barneix Ligi, Berhüta Gotaine.
Patea: Uhartea Barkoxe.
Eztia: Loiol Urdiñarbe.
Axa: Autxetx Ozaze.
Bizkotxo: Okina Idauze.

Urdiñarbe-Usurbil topaketa larunbatean

Aurreko urteetan egin ohi duten moduan, larunbat honetan, azaroaren 16an Urdiñarbera (Zuberoa) doa usurbildar koadrila bat, bertakoekin batera sagardoz bustitako elkartasun afari batean parte hartzera. Otorduan biltzen den laguntza, Iparraldeko Ikastolen Elkarte, Seaskako Integrazio Batzordera bideratuko dute.

Errigorako saskiak eskatzeko azken egunak

Ostegun honetan, azaroaren 14an amaituko da Nafarroa hegoaldeko euskalgintza eta nekazaritza laguntzeko Errigorak martxan jarritako kanpaina. Ekimen honen baitan, erriberako produktuez hornituriko saskiak eska daitezke, ostegun honetara arte. NOAUA!ra deitu (943 360 321) edo egoitzara etorri eta izena eman. Otarroak azaroa amaieran helduko dira eta orduan jaso ahalko dituzue 50 euroren truke. Ordaintzen duzuen diru kopuru honen %25a Nafarroa hegoaldeko proiektu zehaztutara bideratuko da; egoera larrian den Lodasako ikastolara; "Euskaraz bizi eta ikasi" herri ekimenera; eta Erriberako helduen euskalduntzea mantendu eta zabaltzera. Saskiak kalitate goreneko produktuok ditu: bi botila olio (bat ekologikoa), 3 piper poto (batekologikoa), potxak, kardoak, borraja, orburuak, 2 zain-zuri lata, tomate-pikillo saltsa (ekologikoa), barazki krema (ekologikoa).



Euskara sustatzeko baliatuko dira mozkinak.

Herrian bertan badugu zer ikusi, zer ikasi

Kulturaldiko lehen asteburuak berea egin du. Asteburu bete ekitaldi izan dugu, antzezlan, bertso musikatuena saio edota ibilaldi eta guzti. "Aktibo toxikoa" antzezlanarekin estreinatu zen NOAUA!k egunotarako antolaturiko kultur hitzordu sorta. Jende gutxi samar bildu zen Sutegiko auditorioan, baina bertaraturikoei, **Patxi Santamariak** krisiaren inguruan eskaini zuen saio eder eta parte hartzaileaz gozatu ahal izan zuten. Sutegin zitatuak zituen ikus-entzuleen artean nahastu zen aktorea.

Biharamunean, isildutako egia aitortzera, barne emozioak jendaurrean biluztera zetozela iragarria zuten **Unai Muñoa** eta **Ander Lizarralde** bertsolariek. 80 lagun inguru



Paseatuz, txoko ezberdinak ezagutzeko aukera izan zuten partehartzaileek.

bildu zituen larunbateko bertso musikatuena saioak Sutegiko auditorioan.

BITXIKERIA UGARI

Eta igandean, giro goibela zegoen arren, Usurbilgo ondarea ezagutzeko NOAUA!k antolatua zuen ibilaldirako taldetxo osatu zen. **Kaxkoa**, **Santueña**, **Urdaia** eta **Txokoalde** eta

Aginaga lotu zituen paseoan argi geratu zen; udalerritik atera gabe, zenbat dugu oraindik ikusteko eta ikasteko. Ikasgai bat baino gehiago jaso zituzten bertaraturikoei, **Jakoba Errekondo** paisajistaren eta **Itziar Illarramendi** Udarrigi Ikastolako irakaslearen eskutik. Argibide interesgarriak, baita bitxikeria ugariren

berri ere. Eskertzekoa, irteeraren parte hartu zuten herritarrek izandako bide lagunok eginiko lana. Herriko historia-ri, herri ondareari errepaso ederra eman zitzaion.

ZAINDU BEHARREKO HERRI ONDAREA

Ohiko lekuetatik barrena ibili zen herritar taldea. Baina inguruotan ditugun, paraje eta txokoak beste ikuspuntu batetik berriz ezagutzeko aukera izan zuten. Inguratzen gaituzten gune natural edo erai-kin historikoei, atzean pasadizo eta sekretu bat baino gehiago gordetzen baitituzte. Maiz, hemen jaio eta hazi arren, ezezagunak direnak askorentzat. Irteeratik atera daitekeen ondorioa, argia; Usurbilek badu zalantzarik gabe, zaindu beharreko herri ondarea.

NOAUA! KULTURALDIA 13
AZAROAREN 8TIK 17RA

AZAROAK 14 > OSTEGUNA "BELARRIAK SOINU", JOSEBA TAPIAREN HITZALDIA ORDUA: 19:30 POTXOENEAN DOAN 	AZAROAK 15 > OSTIRALA "IZENIK GABE, 200x133", JOSE LUIS ZUMETAREN DOKUMENTALA ORDUA: 19:30 SUTEGIN GONBIDAPENAK NOAUAIN ETA POTXOENEAN  	AZAROAK 17 > IGANDEA "AGUR ESATEA" FILMA IZASKUN ARANDIA ORDUA: 19:00 SUTEGIN SARRERA: 5€ (USURBILGO NOAUAIN ETA TXIRIBOGAN ALDEZ AURRETIK, LEIHATILAN EGUNEAN BERTAN) BAZKIDEEK 3€ (SOILIK NOAUAIKO EGOITZAN, ETA ALDEZ AURRETIK EROGITA) 
--	---	---

noaua     

Sexismoaren aurka, indarrak biltzen

Usurbildar denak animatzen ditugu indarkeria sexistari planto egitera”, hauxe Parekidetasun Kontseilutik, azaroaren 23tik 25era burutuko diren ekimenetan parte hartzeko luzatu duten gonbita. Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Eguna-ren, azaroaren 25aren harira herri eragile desberdinak inplikatu dituen ekimen sorta prestatu dute. Hitzorduok iragartzeko sortu duten kartelak dioen moduan, indarkeria sexistari, matxismoari “zapla!” emateko. Indarra hartzen eta kide berriez hazten ari den Parekidetasun Kontseiluarekin bildu da NOAUA!, ekimenon berri jasotzeko.

Iaztik hona azaroaren 25ari begira antolaturiko ekimen eskaintza indartu da. Nola eman da pauso hau?

Parekidetasun Kontseilua: Parekidetasun Kontseiluak martxa hartu du, martxa hartze honetan indarrak bildu dira eta horrek ere posible egin du egitaraua herritarrengandik sortzea. Egitarau oparago bat izatea ahalbidetu du. Ekintzak Parekidetasun Kontseilutik antolatzeak eta Parekidetasun Kontseilua indartu izanak, zerikusi handia izan du.

Ekimenon ardatza azaroaren 25a da. Nori daude zuzen-duak?

Saiatu izan gara adin desberdinetako herritarrengana iristeko ekintzak antolatzen. Eta azken finean, herritarrengandik ateratako ekimen bat, herritarrengana iristea nahi genuke. Bai nabarmendu nahi dugula, indarkeria sexistaren gaia egiturazko arazo bat dela. Sektore desberdinetan jasaten dugun indarkeriaren dimentsio hori jaso nahi dela.

Elkarlana bultzatu duzue he-



Parekidetasun Kontseilua ari da azaroaren 25aren inguruko egitaraua bideratzen.

PAREKIDETASUN KONTSEILUA

“Nabarmendu nahi dugu indarkeria sexistaren gaia egiturazko arazo bat dela”

rri eragileekin?

Azaroaren 23an adibidez, Andatza Mendizaleen Kirol Taldekoekin mendi martxa antolatu dugu. Mendi martxaren formatua betiko aldarrikapen formatuetatik pixka bat aldentzen da. Positibotik ere nahi dugu aldarrikatu eta. Gero Kaxkora jaistean, hainbat herritarren aldetik ekimen artistiko bat egongo da. Bota Punttuba bertso eskolakoek, kantutaldekoek... parte hartuko dute. Ekimen artistikoa herritarren eskutik antolatzen saiatu gara. Beraiek izateko protagonistak eta beraiek hartu dezaten hitza gai honetan. Herritarrek gonbidatzen ditugu ekintza guztietan parte hartzera.

Ekimen hauen atzean Parekidetasun Kontseilua dago. Indar hartzen ari dela diozue, ibilbide bat osatzen ari da jada?

Iaz hasi ginen. Gai batzuk lantzen eta ekimenak antolatzen hasi ginen. Eta ikasturte berri honetan deialdia berriz ere zabaldu genuen eta orduan jende berria sartu zen. Gazte batzuk ere sartu dira taldean eta horrek ere indarra eman dio taldeari. Azaroaren 25aren inguruan antolatu dugun egitaraua horren isla da.

Parekidetasun Kontseiluak zer ekarpen egin dezake herrian?

Parekidetasun Saitetik indarkeria sexistaren inguruan hainbat proiektu ditugu martxan. Esate baterako, ikastetxeetan martxan jarria dugu hezkidetzat programa bat. Ikasturtez ikasturte bai ikasle, guraso eta irakasleekin lantzen dena. Azken finean, Parekidetasun Kontseiluak funtzio desberdinak eduki ahal izan ditzake. Egia da oraindik ez daudela oso definituak, definitze bidean goaz. Baina bai gai horren inguruko lanketa egiteko gune bat izan ahal dela, udaletik burutzen diren ekintzen edo jardueren jarraipena egiteko gune bat ere badela. Eta hortik ere proposamenak, ekintzak eta abar egin daitez-

keela. Oraintxe tokatu zaigu azaroaren 25aren inguruko ekimenak antolatzea, baina urtean zehar ere buruan dugu gai honen inguruan lanketa bat egitea.

Noiz biltzen da Parekidetasun Kontseilua?

Hasiera batean hilabeteetan behin biltzea finkatu genuen. Gero horrelako ekimenak antolatzen gabiltzanean, maiztasun handiagoa eskatzen du antolaketa lanagatik. Baina hasiera batean, azaldu nahi duen herritarrek, jakin dezala hilabeteetan behin biltzen garelako Potxoenean eta gonbidatuta daudela denak parte hartzera. Ongi etorriak izango dira.

Bai emakumezko zein gizonnezkoak?

Orain mutil bat ere sartu zaigu Kontseiluan. Egia esan, esperientzia positiboa izan da. Zabaldu nahi dugu bai mutil bai emakumezkoek, baina baita ere adin tarte desberdinetako herritarrei. Azken finean baikoitzak egin ahal duen ekarpena aberasgarria da, eta Kontseiluaren martxari onura eman ahal dio. Denentzat zabal zabalik dago Kontseilua.

Tratu txar egoera baten aurrean...

Zer egin?

Parekidetasun Kontseilua:

Halakoetan printzipioz Gizarte Zerbitzuetara jo liteke, baliabideak daude. Bestetik badaude Euskal Herrian gai honen inguruan lanean dabilzan talde feministak. Adinean gazteagoak diren gazteek adibidez, Gizarte Zerbitzuetarako joateko asmorik ez badute, badute alternatiba hori. Azken finean talde feministengandik babes eta laguntza handia jaso dezaketelako. Horiek lirake bide nagusiak.

Gero kasu bakoitzean bide egokiena baliatu beharko da?

Hori da eta ahal dela inguruko laguntza eta babesa biltzea ezinbestekoa da. Nor-



Tratu txarrak salatzeke orduan, hainbat bide daude.

berak bakarrik eramateko gai oso potoloa da. Eta betikoa, komeni da inguruko baten bati laguntza eskatzea edo pasatzen ari zaizun hori nor-

baitekin partekatzea.

Oraindik ikusgarri egiteke dagoen gai bat da hau?

Tratu txar fisikoak bistaratua-

goak daude. Azken urteetan bistaratze lan bat egin delako. Baina egia da, bai osasun mailan, maila ekonomikoan, lan munduan, kirolean, emakumeok indarkeria jasaten jarraitzen dugula eta horri heldu behar diogula.

TELEFONO ZENBAKIAK

- Gizarte Zerbitzuak: 943 377 110 gizarte-zerbitzuak@usurbil.net.
- Udaltzaingoa: 943 361 112.
- Ertzaintza: 943 538 840.
- Tratu txar edo sexu erasoak jasandako emakumeei laguntzeko telefonoa: 900 840 111 edo 016.
- Gizarte larrialdietarako foru zerbitzua (24 orduz): 943 22 44 11 edo 112.

Azaroaren 25ari loturiko ekimenak antolatu dituzte Parekidetasun Kontseiluak eta Gazte Mugimenduak

Azaroak 23, larunbata

- 9:00 Indarkeria sexistaren aurkako mendi-martxa Bordatxo mendira frontoitik abiatuta, Andatza Mendizaleen Kirol Taldearekin.
- 12:00 Hamaiketakoa Dema plazan.
- 12:30 Hainbat herritarren eskutik, ekimen artistikoa Dema plazan: bertsoak, dantzak, abestiak, antzerkia.

Azaroak 24, igandea

- 18:30 Ixabel Agirresaroberen "Emakume protagonistak" helduentzako bakarrikzeta saioa, Sutegiko auditorioan. Toti Martinez de Lezearen "Urak dakarrena", Errose Bustintzaren "Mañariko", R.M. Azkueren kontakizunekin eta beste herri ipuin batzuekin osatutako saio gazi-gozo entretenigarria eskainiko du. Sarrera: doan.

Azaroak 25, astelehena

- 17:00 Emakumeenganako indarkeriaren aurkako mural pintaketa herritarra, frontoiaren atzealdean.
- Antolatzailea: Parekidetasun Kontseilua.

Usurbilgo gazteen mugimenduak

Azaroaren 25ari begira, ekimen gehiago antolatu dira elkarlanean,

kasu honetan, Usurbilgo gazteen mugimenduarekin.

Azaroak 22, ostirala

22:00 Indarkeria sexistari buruzko mahai ingurua Usurbilgo Gazte-txean.

Azaroak 24, igandea

12:30 Elkarretaratzea frontoian. Deitzailea: Usurbilgo gazteen mugimendua.

Otar-Goxo
Elkargak
Zubiaurrenea, n°2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8
☎ 943 370 008

ANORGA TXIBI S.L
KRISTALDEGIA
· komertzial instalazioak · beira bikoitza
· segurtasun beirak · dutxa-itxiturak eta irristailuak
· ispiluak · barandak · kristal mota guztiak...
Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

Bidarrain hasi, Amaiurren bukatu



Haizea eta euria ez ziren traba handia izan Andatzako kideentzat.

17 kilometroko distantzia ei dago Bidarra eta Amaiur artean. Andatzakoek bost ordutan osatzea aurreikusia zuten. Halaxe abiatu ziren aurreko igandean. "Haizeari, euriari eta Irukasko-ko

gailurreko lanbroari aurre eginez, gustura egin genuen ibilaldia", hala eman digute aditzera Andatzako kideek. Argazkian dira mendi martxan parte hartu zutenak.

Alex Txikon, Mendi Asteko protagonistetako bat

Azaroko azken astea mendizaleentzat erreserbatua dago, irteera eta proiektioz hornituriko Mendi Astea antolatuta du eta, Andatza MKT-k, azaroaren 27tik 30era. Hiru ikusentzunezko eskainiko dira; "2010 Marimendiak Andetan" Uxue Berridiren eskutik, Karakorumezko ibilaldiak Alex Txikonen eskutik, eta amaitzeko, etxeko txanda. Andatzakoek urtean zehar antolatu dituzten irteeretan ateratako irudi eta grabatutako bideoak ikusi ahal izango dira. Ekitaldi guztiok, azaroaren 27tik 29ra, iluntzeko 19:30etan hasita Sute-giko auditorioan.

Proiektio hauen aurretik, 2014rako federatu txartelak berritu edota Mendi Asteari amaiera emango dion irteera eta bazkarian izena emateko aukera egongo da, Sute-gin bertan. Egitaraua borobiltzeko hain zuzen, udalerriko mugarrietatik barrena goiz pasa antolatu dute Andatzakoek azaroaren 30erako. Eta gero bazkaria Patri jatetxean. Mendi Asteari buruzko zehaztasun guztien berri, azaroaren 22ko NOAUA'n. Informazio gehiago: andatzamendizale.info

<http://www.noaUA.com>

